



Hitz egin dezagun musikaz

PROUSTEN madalena bezala: *Kafe Aleak* liburuz betetako poltsa hartzera joan –nire herriko taberna bateraino garraiatu ditu Ibon Rodríguezek– eta institututik atera berri diren nerabeekin gurutzatu nintzen udazkeneko arratsalde hotz hartan. Ez naiz horrelako xehetasunak artikuluetan kontatzekoa eta oraingoan ere ez nuen egingo, eszenak, giroak, liburuko edukiak nerabezarora braust itzuli ez banindute, *Entzun!* aldizkari zaharren garaira; diskoak deskargatzen zituzten inguruko *geekak* esku bakarrarekin kontu zenitzakeen denboretara; prentsa, irrati, telebista eta tabernak musika deskubritzeko kanal bakarrak ziren ke arteko egunetara. Entzun *behar* zen zerbait aurkituz gero, lagunei kontatzera korri egiten zenuen. Dena delako kanta ez zegoenez klik batean eskura, hitzak –teknologia zaharkitu hau– erabili behar zenituen esplikatzeke zergatik flipatzen ari zinen halako talderekin.

Barka txapa horrengatik –malenkoniatsu jarri naiz, snif–, baina liburuan 121 lagunek 121 diskori buruz idatzi dituzten artikulua leitzen hasi, eta duela urte batzuk koadrilan musikaz zenbat hitz egiten genuen etorri zait gogora. Bestela esanda, zein gutxi hitz egiten dugun orain. Jon Eskisabelekin bat nator: *Kafe Aleak* aurkeztu zenean *Berrian* idatzi zuen, kontzertuetatik at geroz eta gehiago eremu indibidualera mugatzen ari dela musika zaletasuna; horregatik direla garrantzitsuak mota honetako ekimenak.

Apaindura gutxiko azala, maketazio txukun eta sinplea, zuri-beltzeko argazkiak eta disko bakoitzaren portada eskuz marraztuta –copyright arazoak saihesteko antza; Jon Martin, Alots Arregi eta Joseba Agirrezabalagaren irudiek liburuari estetika berezia ematea lortu dute gainera–. 1990eko hamarkadatik salbatua dirudien lan honek XXI. mendeko bigarren hamarkadan sortu izana du abantaila, musikari buruzko informazio bila hastean Interneteko naufragio bihurtzeko arriskua daukazu garaian. Gomendio egokiak inoiz baino beharrezkoagoak direnean.

1958koa da liburuko diskorik zaharrena eta 2010ekoa berriena. Tarte horretan argitaratu diren Euskal Herriko eta nazioarteko lan esanguratsu ugari

aurkituko dituzu –esaten den bezala, ez daude denak baina dauden denak dira; edo ia–. Liburuaren aldeko puntuetako bat: ez ditut gomendatutako disko eta musikarietako asko eta asko ezagutzen; hitzaurreok dira bilatzen hasteko akuilua.

Irakurri ditudan artikuluek ez dute arau-emaila izateko intentziorik; esango nuke ofizioz edo bokazioz kritikari direnek ere plano pertsonaletik heldu diotela liburu honetara ekarri duten testuari eta beraz zorrotasunean gal dezaketena, hurbiltasunean eta patsadan irabazi dutela. Eta egia esan, egileen zerrenda ikusita, Leire Lopezek eta Ibon Rodríguezek egin duten koordinazio lana txalotzea beste erremediorik ez dago, konglomeratua ez baita nolanahikoa –nire filosofo esloveniarr gogokoenarekin ere kontaktatu dute!–.

Zer gehiago esango dizuet ba: liburuak eskuratu nahi baldin baduzue Kafea eta Galletak ekimenaren webgunean ikus dezakezuela non erosi (www.kafeaetagalletak.net). Edo tabernan jaso nuen poltsatik aleren bat sobratu zaidala baliatuz, prezio hobeagoa lortzen saia zaitezke, gbereziartua@argia.com helbidera idatziz. ■



Gorka Bereziartua



Remigio Mendiburu

Formaren eraikuntza

Oteiza Museoa

2012ko ekainaren 14tik urriaren 7ra

FUNDACIÓN MUSEO JORGE OTTEZA

Nafarroako Gobernua

CH/ de la Cuesta 7 - 31486 Alzuza - Tel: 948 332074 - Fax: 948 332066 - info@museootteiza.org - www.museootteiza.org

SISTEMA DE MUSEOS DE NAVARRA

Laguntzaileak:

kutxa gizarte ekintza